

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik bat:

1. gaia: Duintasunez hiltzeko eskubidea

(Nahi baduzu, [hemen](#) duzu gaiarekin lotutako audio bat)

Egoera:

Oso gertuko senide bat hil zaizu duela gutxi, gaixotasun luze, sendaezin eta mingarri baten ondorioz. Gaixoak eutanasiarako aukera nahi zuela garbi adierazi bazuen ere, hilabeteak eman behar izan zituen sufritzen, praktika hau legez kontrakoa delako gaur egun espainiar estatuan. Zu giza duintasunaren alde zaude eta oso gogorra gertatu zaizu bizi izandakoa.

Eginkizuna:

Idatzi euskal komunikabideetara bidaltzeko moduko artikulua. Bertan adierazi hilabeteotan bizi izan duzun egoera eta sentitu duzun ezintasuna. Azaldu zein izan daitekeen modurik eraginkorrena arazo honi irtenbidea emateko.



Guk idatzitako eredia ikusteko, [hona](#) jo.

2. gaia: Familia gurasobakarra osatu nahi dut

(Nahi baduzu, [hemen](#) duzu gaiarekin lotutako bideo bat)

Egoera:

Hainbat bikotekide izan badituzu ere, une honetan ez daukazu inor zure bihotzean. Laster 40 urte beteko dituzu eta haurrak izan nahi dituzu. Hainbat aukera aztertu ondoren, intseminazio artifizialaren bidea aukeratzea erabaki duzu

Eginkizuna:

Idatzi gutuna senideei, xede izanik hartutako erabakiaren berri ematea, familia gurasobakarra osatzeko erabakiaren aldeko argudioak ematea eta zure erabakia errespetatzeko eskaria egitea.



Guk idatzitako eredia ikusteko, [hona](#) jo.